

ikusi ditzagun adibide batzuk!



Zaindu dezagun gure parkea

Ana, Tito eta haurrekolako lagunek elkarrekin aritu dira eskolatik gertu dagoen parkea garbi eta eder zaintzen. Ikasgelan animaliak, landareak, horiek duten balioa eta behar dituzten zaintzak ikasi dituzte. Ondoren, lorezain eta kazetari lanak egin dituzte: landareak landu dituzte, espezieen izenak seinalizatu dituzte, eta komunitatearentzat parkeak duen garrantzia zabaldu dute bizilagunen artean.



Musika emanaldia Zahar Egoitzan

Araceli, Darío eta Lehen Hezkuntzako 5.mailako lagunek hiruhileko oso bat eman dute musika emanaldi bat prestatzen, eskolatik gertu dagoen Zahar Egoitza batean eskaintzeko. Musika orduan abestiak ikasi, probasaiok egin eta emanaldia antolatu dute. Adineko jendearen aurrean begirunez jokatzeko eta haiekin harremanak ere ikasi dute.



Zibermanagerrak

Gabriel, Juana eta DBH4ko ikaskideak aditu bihurtu dira Interneten erabilera okerrak egiteko arriskuei aurre hartzen. Teknologia ikasgaiak gehiegikeriak ez egiteko eta norberaren intimitatea zaintzeko. Ondoren, LH5eko neska-mutilekin partekatu dute ikasitakoa.

animatzen al zara?

Gure herrian pertsona talde eta erakunde ugari dago ikasketa eta zerbitzu solidarioa sustatzen dutenak. Irririk bazaude, gertuen duzun taldearekin jar zaitezke harremanetan eta guraso, irakasle, gizarte-erakunde eta abarrentzako jardura informatiboa nahiz formatiboa antola dezakezu. Hemen dituzu kontaktuak:

Euskal Autonomi Erkidegoa

Fundación Zerbikas
www.zerbikas.es, info@zerbikas.es

Katalunia

Centre Promotor Aprenentatge Servei
www.aprenentatgeservei.cat
centre@aprenentatgeservei.cat

Madril

Grupo Promotor del Aprendizaje-Servicio
http://aprendizajeserviciom.wix.com/
apss-madrid
aprendizajeservicio.solidario@gmail.com

Valentzia Erkidegoa

Grup ApS Comunitat Valenciana
apscunitatvalenciana.wordpress.com
esther.escoda@uv.es

Errioxa

Grupo ApS de La Rioja
esther.raya@unirioja.es

Galizia

Asociación Galega de Aprendizaxe-Servizo
susana.perez@apesasociacion.org

Almeria

Grupo ApS Almería
iprados@ual.es

Nafarroa

Colectivo Impulsor de AySS
nieves.ledesma@unavarra.es

Gaztela Mantxa

Grupo ApS de Castilla La Mancha
sonia.morales@uclm.es

Gaztela Leon

Grupo ApS de Castilla y León
sulum@psi.uva.es

Aragoi

Grupo ApS de Aragón
parranz@unizar.es

Extremadura

Grupo ApS de Extremadura
marisa.lozano@grupored.net

Asturias

Grupo ApS Asturias
direccion@mardeniebla.org

Canarias

Red Canaria de ApS
apscanarias@gmail.com

Cantabria

Asociación ApS Cantabria
http://www.scoop.it/t/aps-cantabria/
cantabria.aps@gmail.com



ikasten dugu besteei onura eginez



zer da ikasketa eta zerbitzu solidarioa?

Besteei onura
eginez ikasteko
modu bat da.



Euren ingurunean
antzematen duten
behar sozial baten aurrean,
neska-mutilek
komunitatearentzako
zerbitzu bat egiten
dute, eta horrek
laguntzen die
jarrerak,
ezagutzak eta
prozedurak
aplikatzen
eta garatzen.

Ikasketa eta zerbitzu solidarioak (I+ZS) batzen du hezkuntza arrakasta eta gizarte-konpromisoa. Horrela jardunez, gure seme-alabek konpetentziak garatu eta herritar arduratsukoak izango dira.

zertarako balio du?

seme-alabeei

Ikaskuntza errazteko eta errendimendu akademikoa hobetzeko. Neska-mutilak motibatuagoak sentitzen dira ikusten dutenean ikasten ari direna gizartearentzat baliozgarria dela.

Herritar aktiboak eta arduratsuak izaten laguntzen die!



ikastetxeei

Aukera ezin hobea eskaintzen die baliotan eta herritartasunean hezteko. Talde ekintzen bidez lortzen da errealitatea eraldatzea, gogoeta kritikoa sustatzea, eta eskola eta gizartearen arteko harremana hobetzea.

Eskola hazi eta hezi egiten da ikasketa eta zerbitzu solidarioarekin!



familiari

Gure seme-alaben ikaskuntza beste modu batera bizitzeko, eta ikasketa prozesuan gure seme-alaben ondoan egoteko beste modu bat; hezkuntza jarduerak motibagarriagoak izateaz gain inplikazio handiagoa eskatzen dutelako.

Familia osoarekin aisia modu solidarioan egiteko bidea ere zabaltzen du, ekintza solidarioen bidez familiaren balioak transmitituz.



komunitateari

Pertsonen bizi baldintzak hobetzeko eta horien pertenezia-sentimendua sendotzeko.

Komunitatearen ueste ona areagotzearekin batera, boluntariora eta gizarte zibila ere indartu egiten dira.



eta nik zer egin dezaket?

1

baloratu eta zabaldu

Dagoeneko ikastetxeak gisa horretako proiektuak egiten hasia bada, proiektu horiek babestu ditzakegu izan diren esperientziak eta emaitzak txalotuz, eta abian diren proiektuen aldeko jarrera erakutsiz. Bestela, irakasleak adoretsu has dezaten esperientzia laburren bat, gauzatzeko erraza eta denontzat motibagarria izango dena.

2

parte hartu

Modu aktiboan parte har dezakegu proiektuen protagonistakide bihurtuz. Proiektuak aurrera egin dezan, gure denbora apurra, ezagutzak, kontaktuak eta baliabideak eskaini ditzakegu.

3

inspiratu

Gurasook ere I+ZS har dezakegu aintzat gure seme-alabekin gaudenean, beraiekin batera parte hartuz ekintza solidarioetan edo boluntariora; edo eta beraien gizarte-trebetasunak, ezagutzak eta gizarte-erantzunkizuna sustatuz.

4

ikasi

Gure seme-alaben I+ZS proiektuen bidez gurasook ere ikasten dugu. Zenbat gauza aurkitu ahal ditugu gure seme-alabak laguntzen! Zenbat gai, testuinguru eta pertsonak ezagutu ahal izango ditugu beraiekin!